



Arratia

"Bidean Gagoz"

11. zk.

2 0 0 7 a b e n d u a

TOKIKO AGENDA 21aren gaineko informazio aldizkaria




Arratia



Organo berriak eratuko dira Tokiko Agenda 21en eragile ezberdinen partaidetza sustatzeko eta aurrerapausoak ematen jarraitzeko

Tokiko Agenda 21en barruan dauden Arratiako udalerriek eragile ezberdinen partaidetza sustatu nahi dute proiektuaren funtzionamendu zuzena bermatzen jarraitzeko. Horretarako arduradun eta organo berriak eratuko dira, egitasmoa dinamizatu, jarraipen bat egin eta gizartearen antzemandako sentsibilitate eta nahi ezberdinak biltzeko. Udalerrri bakoitzak udal arduradun bat izendatuko du herri mailan iraunkortasun prozesua dinamizatzeko. Halaber, Jarraipen Batzordeak eta Iraunkortasunerako Aholku batzorde bat sortuko dira.

ORGANU BERRIAK



Tokiko Agenda 21en partaidetza sustatzeko neurri berriak



Aalborgeko lehenengo konpromisoak dioen moduan, udalerrri batek iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko ezinbestekoa da tokiko eragile politiko, tekniko, sozial eta ekonomikoen partaidetza.

► KONPROMISOA: GOBERNAGARRITASUNA

Demokrazia parte-hartzailea sustatzera konprometitzen gara erabakiak hartzerako orduan.

Lan egingo dugu:

1. Aurrera begira, hiri eta herri iraunkorren inguruan konpartitutako ikuspuntu bat garatzeko.
2. Partaidetza eta garapen iraunkorren ahalmena administrazioan eta tokian tokiko komunitatean oinarritu dadin, gizarteko sektore guztiak gonbidatuz berehala erabakiak hartzeko prozeduretan parte hartzera.
3. Erabakiak parte-hartzaileak, arduratsuak eta garde-nak izateko.
4. Ondoko udalerriekin, beste hiri eta herrieekin eta gobernu maila ezberdinekin elkarlana eraginkorra izan dadin.

Hori guztiagatik, Tokiko Agenda 21en murgilduta dauden eta Aalborgeko konpromisoekin bat egiten duten udalerriek, Arratia 21 osatzen dutenek, barne zein kanpo partaidetzari bultzada berri bat emango die.

► Jarraipen batzordeak

Barne partaidetza hobetzeko, udalerrri bakoitzak Agenda 21en udal arduradun bat izendatuko du eta bera arduratuko da bertako iraunkortasun prozesuaren jarraipenaz eta dinamizazioaz.

Halaber, asmoa da Tokiko Agenda 21en jarraipen batzordeak eratzea, udal kudeaketako alor ezberdinetako arduradunekin (hirigintza, kultura, berdintasuna, ingurumena, ondarea...), talde-lan giro bat sortzeko asmoz.

Udal batzorde informatzaileak tresna aproposak izan daitezke, adibidez, gainontzeko talde politikoek ere parte hartzeko.

Udaletxe mailan, bultzada hau udalerrri bakoitzeko ezau-garrietara egokituko da.

Halaber, denen artean bultzada beharreko egitasmo eta ideia garrantzitsuak daudenez, udalerrri guztien elkarlana ahalbidetzeko formula ezberdinak bilatzen ari da Arratiako Udalen Mankomunitatea, besteak beste, bailara mailako gaien kudeaketa, jarraipen eta dinamizazio lan bat egiteko, hala nola, mugikortasunaren, hondakinen kudeaketaren, sentsibilizazioaren, komunikazioaren, e.a. inguruan.

► Iraunkortasunerako Aholku Batzordea

Kanpo partaidetzari dagokionez, garatu nahi den beste oinarrietako bat da, Iraunkortasunerako Aholku Batzorde bat edo antzeko zerbait eratuz. Ordezkarri politikoek, teknikoek, eta lanerako prest dauden alor ezberdinetako herritarrek osatuko lukete batzordea, sentsibilitate eta kezka ezberdinak jasoz. Hortik aurrera, herritar guztiei zabalduko zaizkien proposamenak sor daitezke, adibidez, gai ezberdinak jorratzeko foroak, ekintza zehatzak, e.a.

■ **Denen artean bultzada beharreko egitasmo eta ideia garrantzitsuak daudenez, udalerrri guztien elkarlana ahalbidetzeko formula ezberdinak bilatzen ari da Arratiako Udalen Mankomunitatea, besteak beste, bailara mailako gaien kudeaketa, jarraipen eta dinamizazio lan bat egiteko, hala nola, mugikortasunaren, hondakinen kudeaketaren, sentsibilizazioaren, komunikazioaren, e.a. inguruan.**



Arratiako eskolaumeek azterna ekologikoa landuko dute Eskolako Agenda 21-en barruan

Arratiako ikastetxeak duela hiru urte hasi ziren Eskolako Agenda 21-en parte hartzen. Aurreko bi ikasturteetan ura eta hondakinen gaiak aztertu dituzte eta aurten azterna ekologikoa landuko dute.

Azterna ekologikoa kontsumitzen ditugun produktuak ekoizteko eta sortzen ditugun hondakinak bere gain hartzeko planetak behar duen lurrazal tamaina neurtzen duen adierazlea da. Izan ere, lurreko biztanle bakoitzak euskaldunok adina kontsumituko balu, gizakiok bi planeta eta erdi beharko genituzke bizi-rik irauteko.

Planetak jasan dezake eragin hori muga jakin bateraino, baina, muga hori gainditzen ari ote gara?

Ikasturte honetan ikasleek etxean, herrian eta ikastetxean eragiten dugun ingurugiro eragina neurtzen ikasi nahi dute, gure bizimodua planetak natur baliabideak eskaintzeko duen gaitasuna gainditzen ari ote den jakiteko, eta hala bada, horri aurre nola egin ikasi eta ekiteko.

Azterna ekologikoari buruzko hitzaldiak

Zer egin genuen?

Azterna ekologikoa aztertu eta bakoitzak bere azterna kalkulatu zuen.



**Bi planeta baino gehiago behar ditu gutako bakoitzak bizitzeko!
Beraz, gure eguneroko ohitura txarrak aldatu behar gaude!**

Zer da azterna ekologikoa?

Bizi maila espezifikoak duen populazio jakin batek erabiltzen dituen baliabideak erabiltzeko eta sortzen dituen hondakinak asimilatzeke ekologikoki behar den lur emankorraren (laborantza, larreak, basoak edo uretako ekosistema) eremua da, eremu hori dagoen lekua edozein dela ere.



Gaikako zabor bilketa Arratiako ikastetxeetan

Aurreko ikasturtean Eskolako Agenda 21-en parte hartzen duten Arratiako ikastetxeetan hondakinen gaia jorratu zuten bai eskola mailan, bai udalerrri mailan. Hartutako konpromisoen artean daude paper kontsumoa gutxitzea, hondakinen birziklapenaren aldeko apustua eta gai horren inguruan herritarrek sentsibilizatzeko. Hala ere, ikasleek hainbat ekintza proposatu zituzten hondakinen kudeaketa hobetze aldera. Eskolako Agenda 21-en barruan eginiko foroetan, Dima, Igorre eta Zeanuriko eskoletako ikasleek egindako eskaerei erantzunez, Arratiako Udalen Mankomunitateak gaikako edukiontzia ipini ditu Arratiako ikastetxeetan papera, ontziak eta beira sailkatu ahal izateko. Eskola mailan birziklapen tasa igotzeaz gain, txikiak sentsibilizatzeko da helburua, horretarako koloreen arabera edukiontzia ezberdinak ezagutaraziz:



Horia, plastiko, ontzi metaliko eta tetrabrik-entzatzak.



Urdina, paper eta kartoiarentzat.



Berdea, beirarentzat.

Eskolako Agenda 21-en barruan eginiko foroetan, Dima, Igorre eta Zeanuriko eskoletako ikasleek egindako eskaerei erantzunez, Arratiako Udalen Mankomunitateak gaikako edukiontzia ipini ditu Arratiako ikastetxeetan papera, ontziak eta beira sailkatu ahal izateko



Enplegu eta formakuntza programa berriak

2007ko irailetik 2008ko abuztua bitartean Enplegu eta Formakuntza Programa desberdinak garatuko dira. Ondoren eskaintzaren laburpen bat agertzen da.

TREBEA PROGRAMA

- **GERIATRIA LAGUNTZAILEA:** Ikastaroa familia erantzunkizunak dituzten emakumeei zuzendua dago. 364 ordu teoriko eta 180 ordu praktikoa. Hasiera: azaroaren 30a. Lekua: IGORREN.
- **LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARAKO TEKNIKARIA:** Unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen zuzendua. 500 ordu. 180 ordu praktikoa. Hasiera: azaroaren 30a.
- **DENDAKO BURUA:** Unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen zuzendua. 360 ordu teoriko eta 360 praktikoa.
- **ERP LOGISTIKARAKO AHOLKULARIA:** Unibertsitate ikasketak dituzten pertsonen zuzendua. 400 ordu teoriko eta 360 praktikoa.

LANDU PROGRAMA

- **JAVA TEKNOLOGIAN ADITUA:** 360 ordu teoriko eta 360 praktikoa. Hasiera: 2008ko urtarrila. Azaroaren 7an hasitako ikastaroa da.
- **PLANOEN INTERPRETATZIOA 2 ETA 3Dn:** 204 ordu teoriko

- eta 180 praktikoa. Hasiera: 2008ko urtarrilean.
- **LAN-ADMINISTRATZIOA:** 250 ordu teoriko eta 180 praktikoa.
- **HAURREN ZAINTZA ESKOLA-JANTOKIETAN:** 220 ordu teoriko eta 180 praktikoa.
- **MANTENU ELEKTROMEKANIKOA:** 377 ordu teoriko eta 180 praktikoa.

PREST PROGRAMA

- **CISCO SAREETAKO TEKNIKARIA (CCNA):** 300 ordu teoriko.
- **"CATIA V.5" BIDEZKO DISEINU INDUSTRIALA:** 150 ordu teoriko.
- **ESKU-HARTZE GERIATRIKO ETA PSIKOGIZARTE-KOIAN ADITZEKO IKASTAROA:** 220 ordu teoriko.
- **FINANTZA AHOLKULARITZA:** 1.200 ordu teoriko.
- **ZERGEN KUDEAKETAN ADITUA:** 165 ordu teoriko.
- **KONTABILITATE KUDEAKETAN ADITUA:** 285 ordu teoriko.

Arratiako Behargintzatik, ahalik eta ikastaro eta programa gehienak Arratian garatzeko egiten dugu lan. Zenbat eta partaidetza handiagoa izan, are eta errazagoa da ikastaroak Arratian bertan eskaintzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, Behargintzako bulegoetara hurbildu.